

BURDINAREN BIDEAK

INDUSTRIALIZAZIOAREN
HASMENTA
EUSKAL HERRIAN



Zerialn



Legazpi




Ormaiztegi


Zerain baserri giroko herria da, hartan oinarritu izan da ekonomia, gizartea eta politika bera ere.. Baina Zerainek bazuen beste aukera bat Ertarotik XX. mendea arte: burdinaren ustiakuntza. Aizpeko meategiek Legazpi eta inguruko olak hornitzen zituzten. Kontzesioen liberalizazioa, sektorearen krisia, karlisten ustiakuntza eta britainiarren asentamendua eman ziren XIX.enean. Alemanek hartu zuten britainiarren lekua, XX.ean. Orain aztarna zaharrak eta ez hain zaharrak tartekatzen dira: galeriak, minazuloak, bolborategia, biltegiak, ikaztegia, kaltzinazio-labeak, garraiobideak...

Uraren indarrak baliatzeko olak haranetara jaistea Berant Ertaroan gertatu zen. Iraultza tekniko honek burdin esportazioaren puntaren puntan jarri zuen Euskal Herri Atlantikoa, eta. Baina Europan garatu ziren teknika berriak berenganatu ez eta euskal burdinolak ixten joan ziren XIX. mendea aurreratu ahala. Mirandaolak gutxienez XV.etik XIX.a arte funtzionatu zuen. Gure mendearen erdialdean Patrizio Etxeberriak, goitik behera eraberritu zuen: kanala, aldaparoa, tikinoiak, hauspoak, ingude eta gabia... Legazpirentzat hain inportantea izandako bizimodu zahar haren oroimena gera *zedin*

AIZPEA



MIRANDAOLA



Mearen estrakzioa

Ikatz mota

Lagunak lanean


Burdina lantzeko teknika

Lanaldi bakoitzeko ekoizpena

Garraiobidea

ZUMALAKARREGI MUSEOA

Zumalakarregi Museoa
gure historiaren garai
erabakigarria aurkezten
du: bizimodu
tradizionalaren krisia eta
mundu modernoaren
sorrera latza. XIX.eko
Euskal Herriaren ikuspegi
global eta dinamikoak
kontuan izan behar ditu
ematen ari ziren
aldaketak: Aitzin
Erregimenetik
Liberalismora; baserritik
kalera; Foruetatik Estatu
bateratzailera; olatik
fundizioa.... prozesu luze
eta korapilatsuak dira,
batzuetan orainsu arte
iritsi zaizkigunak.



TUPINA



- Nola dago egina?
 Forja Fundizioa

- Zein burdin mota gogoratzen dizu?
 Aizpea Mirandaola


- Burdinaz bestelako materialik badu?

Zer du idatzia?

□□□□□□□□

GOLDE MUTURRA

- Nola dago egina?
 Forja Fundizioz



Nongo burdina gogoratzen dizu?


Zergatik ez da golde osoa burdinez egin?

Oraingo goldeak hau bezalakoak al dira?

TRENZUBIA


Ormaiztegiko Trenzubia
XIX. mendeko historiaren
lekuko eta protagonista
da. 1864an eraikia,
garaiko obrarik
ausartena izan zen: 289
metro luzeko 1.800 tona
burdin lau pilare gainean.
Trenak komunikabideak
ez ezik ekonomia, gizartea
eta ideologia bera irauli
zitu.

□ 1864AN, TREN BATEK Donostiatik Ormaiztegiara **ORDUBETEAN** garraiatzen zuen **1.000** tonako zama...




Zubiaren ondoan,
burdinbide txiki batek
Zeraingo meategiak
Madril-Irun bidearekin
lotu ezezik, Legazpirekin
ere elkartzen zituenez,
Patricio Etxeberria
alemanek utzi berri
meategiak ustiatzen
ahalegindu zen.

... lan bera egiteko **100 gurdik egun osoa** behar zuket.





INDUSTRIALIZAZIOA EUSKAL HERRIAN

- Euskal Herrian 400 burdinola baino gehiago izan ziren. Zein lurraldetan egon ziren gehienak? Zergatik?



- Burdina urtzeko bi sistema hauek batera lan egin zuten XIX. mendean. Zein dago gaurko altzairutegien jatorrian eta zein desagertu zen XX. mendera iritsi gabe?




Burdingintza tradizionala bukatu arren, industrializazioa piztuko da: Foruak aldatuta, mea esporta daiteke, eta kanpoko harrikatza ekarri; zergak Diputazioek kontrolatzen dituzte oraindik; aduanak aldatu dira Ebrotik Bidasoara, eta industria berriak, kanpoko lehiakidez babesturik, espainiar merkatuan saltzen du orain. Kanpoko enpresek teknika aurreratuak aplikatzen dituzte, eta trenbidea ez zen goizetik gauera egin, eta problemak bazirela garbi utzi zuen Bigarren Karlistada (1872-76) lehertu izanak.

1876az geroztik burdina aro berrian zeharo sartu zen, eta euskal ekonomiaren lokomotorea izan da oraintsu arte. Goierrin, baserriz zipriztindutako berdetasuna da nagusi, behialako nekazal iraganaren oroigarri. Baina burdinaren eraldaketan oinarritutako industria da eskualdeko ekonomiaren motorea. **Burdina gure iraganaren zein gure orainaren partaide da.**

Burdingintza tradizionala bukatu arren, industrializazioa piztuko da: Foruak aldatuta, mea esporta daiteke, eta kanpoko harrikatza ekarri; zergak Diputazioek kontrolatzen dituzte oraindik; aduanak aldatu dira Ebrotik Bidasoara, eta industria berriak, kanpoko lehiakidez babesturik, espainiar merkatuan saltzen du orain. Kanpoko enpresek teknika aurreratuak aplikatzen dituzte, eta trenbidea ezarri. Hau guztia ez zen goizetik gauera egin, eta problemak bazirela garbi utzi zuen Bigarren Karlistada (1872-76) lehertu izanak.

☐ Madril - Paris trenbidea Nafarroan barrena igaro izan balitz, Industri Iraultza Gipuzkoan berdin emango zatekeela uste duzu?



1876az gozotik burdina aro berrian zeharo sartu zen, eta euskal ekonomiaren lokomotorea izan da oraintsu arte. Goierrin, baserriz zipriztindutako berdetasuna da nagusi, behialako nekazal iraganaren oroigarri. Baina burdinaren eraldaketan oinarritutako industria da eskualdeko ekonomiaren motorea. **Burdina gure iraganaren zein gure orainaren partaide da.**

Burdinarik gabeko mundua imajina dezakezu? Zein da bururatzeko zaizun burdinazko lehen gauza? Nola biziko ginateke hura gabe? Burdinazko zera hori, eskuz egin liteke? Berdin erabiltzea izango genuke? Egiozu marrazki bat:

